

Istripu-Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena
(klabea DGSFP C-0807)

Produktua: Miniseguro Repatriación BBVA Allianz

Produktuaren kontratu aurreko eta kontratuzko informazio osoa beste dokumentu batzuetan ematen da.

Zertan datzate mota honetako aseguruak?

Espainian bizi diren atzerritarrentzako aseguru da, Istripuak eragindako Heriotzaren kapital bat estaltzen duena, baita heriotzarengatik zure sorterrira eramateko edo aberriratzeko gastuak barne hartzen dituena.



Zer aseguratzen da?

- ✓ **Istripuak eragindako heriotza:**
Aseguru-etxeak zure oinordekoei kaltea ordainduko die zure heriotza aseguru-kontratuan estalitako istripuaren eraginez gertatzen bada.
- ✓ **Garraiatzeko edo Aberriratzeko Bermea, Aseguruduna istripuaren ondorioz hiltzen bada**
Aseguru-etxeak bere gain hartuko ditu zure hilotza zure heriotza gertatu den herrialdetik aseguru-kontratuan ageri den aberriratzeko herrialdean ehorzketa egingo den tokitik gertueneko nazioarteko aireporturaino eramateko tramiteak eta gastuak.
Emakumea bazara eta erditzean hiltzen bazara, edota une horretan zure haurtxoa hiltzen bada edo 30 egun baino gutxiago dituenean, bermeak zuek biok barne hartuko zaituzte.
- ✓ **Amaierako helmugan hartzeko eta Garraiatzeko bermea, Aseguruduna istripuaren ondorioz hilez gero**
Aseguratzailak bere gain hartuko ditu zure hilotza hartzeko eta garraiatzeko gastuak, baita zure gorpua ehorzketa egingo den herriraino eramateko gastuak ere, edo zure senideek izendatzen duten herrialdeko hileta-etxera heldu arte. Emakumea bazara eta erditzean hiltzen bazara, edota une horretan zure haurtxoa hiltzen bada edo 30 egun baino gutxiago dituenean, bermeak zuek biok barne hartuko zaituzte.
- ✓ **Hilotza laguntzeko bermea, Aseguruduna istripuz hilez gero.**
Aseguratzailak zure oinordekoek adierazten duten pertsonari garraio-bidea emango dio zure hilotzarekin batera bidaiara dezan, beti ere pertsona horrek bidaiatzeko beharrezkoak diren dokumentuak baldin badauzka.
- ✓ **Senide bat eramateko edo aberriratzeko bermea, Hartzaila hiltzen den istripu berean hiltzen bada.**
Zu hiltzen zaren istripu berean zurekin bizi den senitartekoren bat ere hiltzen bada (zure ezkontidea, izatezko bikotea, gurasoak edo 25 urtetik beherako seme-alabak), aseguru-etxeak bere gain hartuko ditu bere hilotza garraiatzeko tramiteak eta gastuak, heriotza gertatu den herrialdetik ehorzketaren tokitik gertueneko aireporturaino, aseguru-kontratuan ezarritako aberriratu beharreko herrialdean. Istripua gertatzen denean zure seme-alabak 14 urte baino gutxiago badauzkate, aseguratzailak aberriratzeko, errausteko edo ehorzketa egiteko aukera emango du, hil ziren herrian bertan, edo zuren familiaren helbidea dagoen tokian, aldi baterako ehorzketa barne.
Berme bakoitzeko aseguraturako zenbatekoa aseguru-kontratuko Baldintza Berezietan agertuko da.



Zer ez dago aseguraturata?

Hona, laburbilduta, salbuespen nagusiak; Informazio Orrian eta Baldintza Orokorretan osorik eskura daukazu.

Bermeak bazter geratuko dira zure heriotza honakoen ondorio bada:

BERME GUZTIETAN

- ✗ Erreakzio edo erradiazio nuklear edo kutsadura erradiaktiboaren ondorio zuzen edo zeharkako gisa gertaturikoak. Lurrikarek, sumendi-erupzioek, uholdeek edo urakanek sorturikoak eta nazioko Gobernuak hondamendi edo zorigaitz nazional izendatzen dituen egoeretatik eratorritakoak.
- ✗ Kontratuan indarrean sartu baino lehen gertatutako istripuen ondorioa. Aseguru-kontratu indarrean sartzen den egunaren aurretik gertatutako gaixotasunaren edo istripuaren ondorioak, horien ondorioak honen indarraldian iraun, agertu edo ezartzen badira ere.
- ✗ Urpeko nabigazioa edo esplorazio-bidaia praktikazetik, eta baita honako kirolak zaletu mailan egitetik eratorritako istripuak ere: zaldiketa, eskia lehiaketan, alpinismoa, espeleologia, borroka, boxeoa, borroka-arteak, urperaldiak, aireko kirolak, automobilismoa, motoziklismoa, errugbia eta poloa.
- ✗ Aseguratuaren arduragabekeria edo axolagabekeria larriko ekintza baten ondorioak, baita Aseguratuak delitu-ekintzetan, lehiaketetan, apustuetan, duelu edo liskarretan parte hartzeagatik eratorritakoak ere, beti ere, azken kasu horretan, defentsa legitimoan edo pertsonak edo ondasunak salbatzeko saiakeran ez bada.
- ✗ Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak estalitako arriskuak

Istripu-Asegurua

Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena
(klabea DGSFP C-0807)

Produktua: Miniseguro Repatriación BBVA Allianz



ISTRIPUAK ERAGINDAKO HERIOTZA-BERMEAN

- ✗ Heriotza eragin zuten gertakariak Istriputzat jo ez badaitezke.
- ✗ Istripua Asegurudunak kirol-probetan parte hartzeagatik gertatzen denean, ibilgailua pilotu edo kopilotu gisa edo bidaiari gisa erabiltuta.

GAINERAKO BERMEAK

- ✗ Erakunde Aseguratzaileari aurretik eskatu ez zaizkion prestazioak, baita horren baimena jaso ez dutenak ere, behar bezala egiaztatutako ezintasun materialeko kasuetan izan ezik.
- ✗ Pertsonak mendi, labar, itsaso, oihan edo basamortuetatik erreskatatzea.



Ba al dago Estaldurari dagokion murrizketarik?

Hona, laburbilduta, murrizketa nagusiak; Informazio Orrian eta Baldintza Orokorretan osorik daukazazu.

- ! Zure gorpuaren aberriratzeta gaixotasun baten ondorio bada, ezin izango duzu estaldura erabili kontratuaren hasierako datatik hiru hilabete igaro baino lehen, gutxienez.

- ! 14 urtetik beherako seme-alabaren hilobiaren iraupena 5etik 10 urtera bitartekoa izango da, lurperatzea egiten den hilerriaren arabera.
- ! Ez daude estalita zure hilotzarekin batera bidaiatzeko pertsonak beharrezkoak dituen dokumentuak lortzeko gastuak.
- ! Ez dira sartzen hileta, ehorzketa, lore, erlijio-zeremonien... gestio-gastuak.



Non nago estalita?

- ✓ Zure heriotza Europar Batasuneko herrialderen batean, Andorran, Suitzan eta Norvegian gertatzen denean.



Zeintzuk dira nire betebeharrak?

- Aseguruaren prezioa ordaintzea.
- Aseguru-kontratuan ageri diren zure datuak eta aberriratzeari buruzko berariazkoak zuzenak direla eta horiek aldatuz gero BBVA Allianz Seguros-i jakinaraztea.
- Heriotza gertatuz gero, BBVA Allianz Seguros-i 7 eguneko epean jakinaraztea eta hura egiaztatzen duen dokumentazioa helaraztea, espedientea behar bezala tramitatu ahal izateko.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Aseguruaren ordainagiria zuk adierazten diguzun bankuko kontuan helbideratuko dugu. Honako ordainketa-aukera hauen artean hautatu ahal izango duzu: hiru hilean behin, sei hilean behin edo urtean behin.



Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Kontratua hasierako datako 00:00etan indarrean sartuko da eta urte beteko iraupena du. Automatikoki berrituko da, urtero, zuk edo BBVA Allianz Seguros-ek aurkakorik adierazi ezean eta aseguru-kontratua honako kasuetakoren bat ematen denean amaituko da:

- 65 urte betetzen dituzunean.
- Aseguruaren salneurriaren aldi behingo ordainketa egiten ez baduzu.
- Heriotza.



Nola amai dezaket kontratua?

BBVA Allianz Aberriratzeta Mini-aseguruaren kontratua urtekoa da, hiru hilean, sei hilean edo urtean behin ordainduagatik. Kontratua berritu ez dadila eskatzeko, amaierako data baino hilabete lehenago jakinarazi beharko diguzu, zure NANaren edo zure nortasuna egiaztatzen duen beste dokumentu baten kopia erantsita, eta BBVA Allianz Seguros-era bidali, polizaren Baldintza Orokorretan ageri den helbide sozialera, Ramírez de Arellano kalea, 35 28043 Madrid, edo BBVA Taldeko edozein bulegora joanez, edo helbide elektronikora seguros@bbvaallianz.es.